

Santanderreko alkatea, PSOE eta Euskadi

Deia, 1983-07-17.

Santanderreko alkateak (deitura euskalduna eta Fragaren politika!) "*Universidad Internacional Menéndez y Pelayo*"n egindako hitzaldi batetan esan duenak Espainiako prentsa guztia astindu du, eta erresumako fiskalari bidali diote jaso den textoa; laburki esanda: *Euskal Herriak eta Catalunyak, herri berezi direnez gero, badutela autodeterminazioa eskatzeko eskubidea.*

PSOeko gizonak ere eskandalizatu dira!

Ez dakit zergatik, horiek berak agertu baitira orain egun batzu Latinoamerikako herriak nozitzen ari diren zapalkuntzaren aurka daramaten borroka armatuaren alde! Han, Ameriketan, bai borroka armatua ere; eta hemen, autodeterminaziorako demokraziak lekuetan erabiltzen duen biderik ere ez.

Baditu PSOEk aisa uler ezin direnak. Aipatzekoa da kontexto honetan PSOeko UGTk Araban egin duen bihurrikeria: Arabako mailan UGTko idazkari orokorra zenak prentsari ekainaren 18an adierazi ziona hau izan zen: Euskadiko arazo nazionalak garrantzi handia dutela politika mailan, eta gaur PSOE gai honetaz egiten ari dena ez dutela Arabako UGTkoak onartzen. "Ez dugu uste –esan zuen Arturo Val del Olmo jaunak– gobernu sozialista terrorismoari buruz hartzen ari den neurriak eraginkorrak izango direnik; bestalde, Euskadik autodeterminaziorako eskubidea ba du; ez independentziarako, baina ezagutu behar litzaioke Espainiako estatuarekin izan nahi dituen lotura moetak aukeratzeko eskubide osoa".

Eta UGTren exekutiba mailan duten *konfederakuntza* aipatu zuen honek esandakoaren oinarri bezala.

Disidentzia hau ez da berria PSOEn.

Hara Mundu Gerra amaitu ondoren, 1945ean, Eusko Jaurlaritza eguneratu behar izandu zenean gertatu zena: 1940an, Alemaniarrek Hendaiaraino heldu ziren une larri haietan, Eusko Jaurlaritzako gizonen artean asmo bat sortu zen: Osatzen zuten indar politiko guztiak naziotasunaren adierazpena egitea, delako "*declaración de nacionalidad*". Pasa ziren urteak, eta 1945an Baionako Paktua izenpetu zenean, Toyos kontseilari sozialistak ez zuen egin nahi izandu, baina alderdikide zen Santiago Aznarrek, bai.

Eta Aznar PSOetik bota izan zen.

Kontuan hartzekoa da, garai hartan Eusko Jaurlaritzan zeuden alderdi errepublikarrak aisa asko izenpetu zutela Eusko Naziotasunaren adierazpena; baina sozialistak ez, batez ere orduko lehendakari zuten Llopis-en seta gogorra bait zen hau.

Llopis, orain agintzen dauden hoiek bota zuten.

Baina haren markako seta bera gorde dute gure eskubide soil besterik ez direnen aurka.